

**Eremua:** Urola Kostan garatzen ari den edo garatuko den proiektu edo ideia izatea.

**Parte-hartzaileak:** Erakunde, elkarte, partikularrak eta sektoreko enpresak.

**Proiektuak:** 2019-2020 urteetan garatu edo amaituko direnak.

**Aurkezteko Epea:** Urriaren 21etik-azaroaren 21era

**Aurkezteko dokumentazioa:** Bi zatitan banatuta ideia edo egitasmo bakoitzeko. Alde batetik, norberaren datuak, eta bestetik, proiektu edo egitasmoaren informazioa.

**SARI IREKIA,** bozka bidezkoa, Urkomeko webgunean azaroaren 29tik sari banaketa egunera arte eman ahal izango da.

**Aurkezteko lekua:** Urkomeko bulegoan.

# 6.

## Urkome Sariak

Atalak

Nekazaritza jardueraren sustapena.

2.000€

Landa eremuko jarduera ekonomikoaren sustapena.

2.000€

Landa eremuetako azpiegitura eta zerbitzuak bermatzea.

2.000€

Landa eremuko balioaniztasuna agerian jartzea.

2.000€

Iraurgi Berritzenek eta Urola Kostako Udal Elkarteak elkarrekin emango dutena.

2.000€

Landa eremuko emakume ekintzailea

2.000€

Sari irekia BOZKA bidez egingo dena. **Bertako produktuen lote bat.**



www.urkome.eus





An aerial photograph of a natural landscape, split vertically. The left side shows a river with white water rapids, transitioning from a light blue-green to a darker teal. The right side shows a lush green forest with a field of corn in the foreground. A large white stylized letter 'e' is overlaid on the center, and the text 'Urkome Sariak' is written vertically on the left side.

# Urkome Sariak





# Sariak sei ataletan emango dira:


---

- Nekazaritza jardueraren sustapena.
- Landa eremuko jarduera ekonomikoaren sustapena.
- Landa eremuetako azpiegitura eta zerbitzuak bermatzea.
- Landa eremuko balioaniztasuna agerian jartzea.
- Iraurgi Berritzenek eta Urola Kostako Udal Elkarteak elkarrekin emango dutena.
- Landa eremuko emakume ekintzailea. SARI IREKIA bozka bidez egingo dena.

Lehenengo lau atalak Urkomeren 2015-2020 Landa Garapen Programan sartuta dauden lau garapen ardatzetan oinarrituta daude. Bosgarrena, eskualdeko elkarrekin egindako elkarlanaren ondorioz emango da (Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkartea). Aurten lehenengo aldiz landa eremuko emakume ekintzaileari saria emango diogu. Aurkezten diren proiektuen artean aukeratuko delarik.

Eta azkenik, partaidetza areagotzeko ahaleginetan, BOZKA bidez emango den sari bat egongo da.

Sariak emateko epaimahai bat eratuko da, erakunde hauetako kideez osatua: Eusko Jaurtaritza, Iraurgi Berritzen garapen agentzia, HAZI Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Urola Kostako Udal Elkartea eta Urkomeko Zuzendaritza Batzordea.





# Oinarriak

- **Aurkezteko Epea:** Urriaren 21etik azaroaren 21era.
- **Aurkezteko lekua:** Urkomeko bulegoan.
- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**  
Bi zatitan banatuta ideia edo egitasmo bakoitzeko. Alde batetik, norberaren datuak, eta bestetik, proiektu edo egitasmoaren informazioa (fikusi Urkomeko webgunean proiektua aurkezteko ereduak).

- **Guztira 6 atal.** Atal bakoitzean:

**2.000€**

**SARI IREKIAK** edo bozka bidezkoak, eskualdeko produktuez osaturiko lote bat izango du sari.



- **SARI IREKIA edo bozka bidezkoa:** botoa azaroaren 29tik sarien banaketa egunera arte eman ahal izango da Urkomeren webgunean.

Proiektu bakoitza aurkezteko, norberak egingdako "laburpen txikia" jarriko da (300 karaktere gehienez).

- **Eremua:** Urola Kostan garatzen ari den edo garatuko den proiektu edo ideia izatea.

- **Parte-hartzaileak:** erakunde, elkarte, partikularrak eta sektoreko enpresak.

- **Proiektuak:** 2019-2020 urteetan garatu edo amaituko direnak.







# Balorazio irizpideak

---

- Ideia edo proiektu berritzailea izatea, produktu edo zerbitzu berria sortzea.
- Berrikuntzak sartzea gaur egun dauden produktu edo zerbitzuetan.
- Teknologia berrien aplikazioak aurreikusten dituzten proiektu edo ideiak gehiago baloratuko dira.
- Bideragarritasun ekonomikoa landuta duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- Enplegua sustatzen duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- Berdintasuna aurreikusten duten proiektuak gehiago baloratuko dira.
- Gazteen ideiak gehiago baloratuko dira.
- Kooperazio proiektuak gehiago baloratuko dira.
- 2019-2020an gauzatzea aurrizkusten duten proiektuak eta hori bermatzen dutenak gehiago baloratuko dira.







# Epaimahaiaren erantzuna

---

- Epaimahaiak sariak emateko gaitasun osoa du, eta adostasunez hartuko ditu erabakiak irizpideen arabera.
- Parte-hartzaileei sari banaketara gonbidatuko zaie, eta ondoren, irabazleak [www.urkome.eus](http://www.urkome.eus) webgunean jarriko dira.
- Epaimahaiak atal bakoitzerako dagoen saria nola banatu erabakitzeke eskumena izango du, bai eta sari hori eman gabe uztekoa ere, horretarako proiektu egokirik ez dagoela iritziz gero.



## Parte-hartzaileen betebeharrak

---

- Sari-lehiaketaren oinarriak onartzea.
- Ideia edo proiektua behar den bezala aurkeztea.
- Datuen fidagarritasuna bermatzea.

## Antolakuntzaren betebeharrak

---

- Partaideek aurkeztutako proiektu edo ideiak isilpean / babesturik mantentzea.

# Urkome

Sariak



Enparan, 1-2.

20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 81 65 00 - Fax: 943 15 73 85

[urkome@urkome.eus](mailto:urkome@urkome.eus)

[www.urkome.eus](http://www.urkome.eus)

*Euskadi, auzolana, bien común.*



# URKOME SARIETAN PROIEKTUA AURKEZTEKO EREDUA

Aurkeztu behar den Memoriak ez du sustatzailearen informazioarik azaldu behar  
Azaltzen diren puntuak, balorazio erizpideetan oinarriturik daude

## PROIEKTUA.

1.1.- Laburpen txikia: Proiektua zertan den berritzailea edo zein zerbitzu berri sortzen duen azpimarratuz ( 300 karaktere gehienez).

1.2.- Merkatu-azterketa.

- Produktuaren/zerbitzuaren deskribapena.
- Eragiketen plana: Baliabide tekniko eta materialen eta giza baliabideen deskribapena.
- Ingurunearen eta sektorearen azterketa: Sektorearen bereizgarriak.
- Merkatuaren eta bere segmentazioaren identifikazioa:
  - ✓ Aseko diren beharrak: Negozioa abian jartzea ekarri duten beharrak:
  - ✓ Hartzaileak/Bezeroak: Zehaztu produktua/zerbitzua nori zuzenduta dagoen.
  - ✓ Lehiakideen identifikazioa: Lehiakideak identifikatu eta azaldu zer abantaila dituen aurkeztutako proiektuak horien aldean.

1.3.- Marketing plana.

- Produktuaren edo zerbitzuaren politika: Produktu/zerbitzu bakoitza merkaturatzeko modua.
- Prezioa: produktu/zerbitzu bakoitzaren prezioa definitu. Justifikazioa eta lehiakideen prezioekiko konparaketa.
- Banaketa: Produktua/zerbitzua banatzeko eta merkaturatzeko moduak.
- Jakinarazpena: Publizitate- eta sustapen-jarduerak.

1.4.- Proiektuak enplegua sortzeko duen ahalmena.

1.5.- Lankidetzan berritzea:

- Beste enpresa/sustatzaileekin lankidetzak-akordioak edukitzekotan, azaldu zertan datzaten.

1.6.- Berdintasuna aurrikusten duen edo ez azaldu

1.7.- Lurraldearekiko lotura:

- Azaldu inpaktua eta emaitzak: zertan lagunduko duen proiektuak udalerrria, eskualdea, lurraldea, etab. garatzen.

1.8.- Enpresaren ekonomia- eta finantza-plana.

1.9.- Proiektuaren exekuzioa 2019-2020an egingo dela justifikatzea